

“La plaza frontón, ágora vasca” hitzaldia izango da larunbatean Arraia-Maeztun

AFAk hiru hitzaldi-solasaldiko zikloa antolatu du ondare aberats eta berezi hori ezagutzera emateko

Gasteiz, 2019ko azaroaren 14a.- Gure frontoiak ondare aberats eta berezia direnez gero, Ana Val diputatuak zuzentzen duen Kultura eta Kirol Sailak hiru hitzaldi-solasaldiko zikloa antolatu du Arabako bi herritan, hura ezagutzera emateko. Zikloa larunbat honetan, azaroak 16, hasiko da, 18:00etan, Arraia-Maeztuko udaletxeko erakusketa aretoan, eta bertara hurbiltzen direnek Iñaki Uriarte arkitektoaren “La plaza frontón, ágora vasca” hitzaldia entzun ahal izango dute. Hitzaldiaren ostean, solasaldia izango da eta hartan parte hartuko dute, Iñaki Uriarterekin batera, Ekain Jiménezek, Euskadiko eta Nafarroako Arkitektoen Elkargo Ofizialeko kultura arloko kideak, eta Ramón Urbinak, Arabako Pilota Federazioko kanpo harremanetarako eta komunikazio arloaren arduradunak. Entzuleek ere parte hartu ahal izango dute.

“Frontoiak Arabako herri eta hirien paisaiaren zati dira, eta pilota jokoan aritzeko lekuak izateaz gain, gizarte bizitzako beste hainbat jarduera ere gauzatzen dira haietan”, adierazi du Val diputatuak. “Gure lurraldean, oraindik ere plazetara irekitako zenbait frontoi ditugu, eta balio arkitektoniko eta kultural handia dute, eta horren berri eman nahi dugu jarduera hauen bitartez”, nabarmendu du.

Bigarren hitzaldia azaroaren 30ean izango da, 18:30ean, Lapuebla de Labarcan. Hirugarren bat ere izango da, oraindik datarik zehaztu ez bada ere, ziur aski Berantevillan.